



***Ikasketa Profesionaleko Sarbide-Probak
Ebaluazio-irizpideak
Kantua***

**EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
KANTUA**

- 1. Eginiko esfortzu muskularra, arnasketa eta beharrezko erlajazio mailaren kontrola ahotsaren emisiora egokitu.**

Irizpide honen bidez ebaluatuko dena, ikasleak zein neurritan:

- Gorputzaren posizio egokia mantentzen du ahotsaren emisio egokia egon dadin.
- Arnasketa kosto-diafragmatiko-abdominala ongi egiten du ahotsaren kalitatea ona izan dadin.

- 2. Obren interpretazioan musikari eta teknikari dagozkien alderdien erabilera egokia egitea.**

Irizpide honen bidez ebaluatuko dena, ikasleak zein neurritan:

- Partituraren irakurketa egokia egitea interpretazioaren oinarria indartuz.
- Teknikaren erabilera egokia egitea, arnasketaren kontrolari dagokionean.

- 3. Instrumentuak duen aukera sonoro anitza ongi organizatzea eta entzumenaren sensibilitate graduaren kontrola erakutsi soinuaren kalitate eta perfektzionamendua bermatzeko.**

Irizpide honen bidez ebaluatuko dena, ikasleak zein neurritan:

- Ahots aparatuen ezagupen anatomiko zein fisiologikoak izatea.

OHARRAK:

- * Frogetan parte hartuko duten ikasleek, beren pianista-errepertorista ekarri beharko dute.
- * Ahotsaren aldaketa egina izatea eskatuko da (emakume ahotsak: 15 urte eta gizonezko ahotsak 16 urte gutxi gora behera) beste kasuetan, tribunalak froga bertan behera utz dezake.